

Nork: Asier Alkorta -maiatza 31, 201

MIKEL LERTXUNDI ESKULTOREA, LOGROÑOKO SCULTO AZOKAN



Eskultore berriatuarrak Bilboko Juan Manuel Lumbreras galeriarekin erakutsiko ditu bera eskulturak Logroñoako azoka eraikinean (San Blas merkatuan, Abastos plaza). Gaur [maiatzak 31] inauguratu dute azoka, eta ekainaren 4ra arte egongo da ikusgai. Dena dela, herritarrek bihar [ekainak 1] bisitatu ahalko dute, 18:00etatik aurrera.



Mikel Lertxundi, Sculto azokan

Sculto azoka soilik eskultura diziplinari eskainitako azoka da, eta estreinako egingo da; aintzindaria eta Espainia mailan egiten den bakarra da, eta Lertxundi bertan parte hartzeko aukeratu dute. Lertxundigaz batera, Espainia mailako hainbat eskultorek parte hartuko dute azokan. "Nazioarte mailan ezagunak diren eskultoreak bilduko ditu azokak", esan dute antolatzaileek.

Ordutegia:

- Ekainaren 1ean 18:00etatik 20:00etara
- Ekainak 2 eta 3: 12:00etatik 20:00etara
- Ekainak 4: 12:00etatik 18:00etara

 Lertxundi. Argazkilaria: Iñaki Mendizabal

Lertxundi. Argazkilaria: Iñaki Mendizabal